



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita 2024-2025 aldian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia.

Hezkuntza sailburuaren 2024ko urtarrilaren 9ko Aginduak (EHAA, 13 zk., 2024ko urtarrilaren 17koa), 2024-2025 epealdian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten du.

Hautapen Batzordeak aginduaren 10. eta 11. artikuluek ezarritakoaren arabera esleipen-proposamena egin zuen. Proposamen hori ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen 1. eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea Ezagutza Unibertsitatetik Enpresetara eramatea helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroko ikerketa-proiektuak egiteko.

Bigarrena.– Ebazpen honen 2. eranskinean ageri diren «Ezagutza Unibertsitatetik Enpresetara eramatea helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak baztertzea bertan adierazten diren arrazoiengatik.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea